

OSTIRALA, 2026ko UZTAILAREN 31

Xanistebanak **2026**

OIARTZUN

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Kalean dastatzeko xanistebanak

**Igandean hasi eta abuztuaren 6an
bukatuko dira Oiartzungo Xanisteban
Festak. Dozenaka ekitaldi prestatu ditu
herriko jai batzordeak, ia denak kalean
bizi eta gozatzekoak • 19-29**



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Xanistebanak gozatu!





lazko xanistebanen hasierakoa da ondoko irudia. Oier Iribarren

Ia 100 ekitaldi oiartzuarren izaera plazaratzeko

URKO ETXEBESTE PETIRENA

O arsoaldeko eta Hondarribiko nahiz Irungo biztanleek abuzturako festen plana badute, horretan ezinbesteko zati dira Oiartzungo Xanisteban Jaiak. Ofizialki eta ohorez abuztuaren 2an hasiko dira, eta 6ra arteko bidea egingo dute. Beraz, datetan aldaketarik ez, betikoak dira. Egitarauari dagokionez ere nobedade oso-oso nabarmenik ez da, eta xanistebanetan ikur diren ekitaldi den-denak prestatu ditu herriko jai batzordeak. Festen hasiera abuztuaren 2an bada ere, aurretik badira jarduerak. Horien denen berri izateko joan *oarsoaldea.hitza.eus* webgunera.

Jarraian doazen orrialdeetan Oiartzungo festen gaineko hainbat gai landu ditu HITZA-k. Jarduera zerrenda mardul, oso eta askotariko baten laginak besterik ez dira. Izan ere, herritarrek eta udalak osatutako jai batzordeak ia 100 jarduera bildu ditu abuztuaren 2tik 6ra arteko tarterako, beraz, esan daiteke goiz, eguerdi, arratsalde edo gau izan, ordu oro ekintzaren bat izango dela herrian.

Ezaugarri bat dute ekitaldi gehienek: kalean gozatzekoak dira. Beste ezaugarria, hau da, ekitaldi horiek partaide edo jarraitzaile asko izatea batik bat oiartzuarren esku dago. Ziur batzordekideek mimos prestatu dituzten horiek herritarren eta bisitarien jarraipen handia izango dutela.

Alkatearen hitzaurrea

Oiartzuar gehienek izango dute jada festen egitaraua sukaldeko mahaian. Horren hasierako hitzaurrea Joana Mendiburu alkateak egin du. Hitz tarte horretan Mendiburuk azaldu du askoren artean landutako festak direla Oiartzungoak, eta aurtien «belaunaldiz belaunaldi transmititu den ondarea» ekarri nahi dutela plazetara eta kaleetara, «euskara».

Festak ospakizun aroa direla nabarmendu du herriaren gidariak, baita Oiartzunen ispilu ere, «entzuten eta erantzuten duen komunitatea» da herria haren ustez. Alta, jaiak askatasunez, alaitasunez eta errespetuan bizitzeko direla baietsi du, eta eraso sexistarik nahiz diskriminaziorik gabeko festak izan daitezela desio du. ■



KIRIKOKETA

gozau dakizun bezala!

Aialde, 1. Oartzun
943 26 07 78



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

Jai berdinzaleen alde, egitarau feminista

LEIRE PERLINES APALATEGI

Jai batzordeak argitaratu du dagoneko xanistebanetako egitaraua. Dozenaka jarduera izango dira herrian datozen egunetan, eta horien artean badira zenbait feminismoa eta berdintasuna ardatz dutenak.

Oiartzungo Feministen Asanblada 2019an sortu zen, eta orduz geroztik egitarau propio bat sortzen dute festetarako «parte hartzea, komunitatea eta harremanak sustatzea» helburu izanik, betiere erdigunean gozamina dutelarik. Aitziber Erasun asanbladako kideetako bat da, eta kontatu du eurentzat garrantzitsua dela «gozatzeko espazio seguruak» sortzea. Era berean, azaldu du ezinbestekoa dela gorputz eta identitate anitzek lekua izango duten espazio horiek izatea, «bakoi-tzak bere gorputza askatasunez bizi eta gozatzeko».

Erasunek adierazi du egitaraua aha-

EGITARAU FEMINISTA

ABUZTUAK 2, IGANDEA

- **17:30.** Agerraldi feminista Doneztebe plazan.

ABUZTUAK 4, ASTEARTEA

- **14:30.** Bazkari begano feminista Zimitiyoko txosnan. Txartelak Kastron daude salgai 12 eta 15 euroan.
- **17:00.** Bingo musikatua Zimitiyoko txosnan.
- **19:00.** Boloma txosnagunean.

lik eta irisgarrien eta erakargarrien egiten saiatu direla «adin guztietako pertsonentzat, pertsona gehiagok parte hartu eta eroso senti daitezen».

Ohiko egitaraua

Uxue Barrenetxea ere asanbladako kidea da, eta azaldu du Feministen Asanblada sortu zen urtetik hartzen dutela parte jai batzordean; «uste dut horrek

2025eko xanistebanetako agerraldi feminista.

Oier Iriarte Arrondo

laguntzen duela xanistebanak anizkoiagoak izaten». Hala, nabarmendu du berdinzaleagoak izango diren jaien alde jarraitzen dutela lanean.

Erasunek zein Barrenetxeak, biek azaldu dute garrantzitsua dela asanbladarentzat herrian presentzia izatea, bai publikoki zein modu pribatuan egorak hala eskatzen duenean. «Jasotzen dugun erantzuna ona da, baina garrantzitsua iruditzen zaigu borrorako ez ezik, jai giroarako zein jai giroan aliantzak sortzea eta elkarren artean artikulatzea, guk ere badugulako ondo pasatzeko eskubidea». ■





Ixiar Ibarguen, Aintzane Otaegi, Maru Rivas, Pilar Etxebeste eta Ainhoa Garaño, Arizmendiko lorategian. L. Perlines Apalategi

27 urtean egindako lana aitortzeko, suziria zerura

Igandean (abuztuak 2) hasiko dira Oiartzungo xanistebanak, eta Urmendi Udal Ikastola Partzuergoko ordezkariak botako dute suziria.

LEIRE PERLINES APALATEGI



ZUBILLAGA

aholkularitza - gestoria

- FISKALA • LANA
- KONTABILITATEA
- ZIRKULAZIOA
- ESKRITURAK, HERENTZIAK
- ASEGURROAK

Aialde Kalea 3, behea - 20180 Oiartzun - 943 49 18 92 - asesoria@asesoriazubillaga.eus

Igandean (abuztuaren 2an) hasiko dira oiartzuarrek horrenbeste espero dituzten jaiak: xanistebanak. Bost egunez, abuztuaren 2tik 6ra bitartean izango dira herriko festak, eta zienta bat jarduera antolatu dituzte egun horietarako. Hala ere, jaietako hitzordu garrantzitsuena igande arratsaldekoa izango da, jaietako hasiera emango dena, alegia. Txupinazoa da ekitaldi hori, eta aurtengoan Urmendi Udal Ikastola Partzuergoko ordezkariak botako dute suziria.

Aurten herritarrek lehenengoz izan dute aukera txupina botako duen pertsona edota kideak proposatzeko, eta 30bat iradokizun jaso ditu jai batzordeak. Horien artean Urmendi aukeratu dute, «azken 30 urteetan herrian egindako lana eta herriari egindako ekarpena goraipatu eta eskertzeko».

Urmendik hogeita zazpi urteko ibilbidea egin du Oiartzunen, eta igande arratsaldeko ekitaldian «herri proiektu eredugarriari egindako lana» aitortu nahi diote. Egun horretako 18:30ean sokadantza egingo dute, eta haren ondoren izango da txupinazoa. Balkoira, hartara, Urmendiko komunitatea osatzen duten kideak igoko dira; hala nola, hezitzaileak, sukaldariak, garbitzaileak eta baita proiektua martxan jarri zuten zenbait kide ere.

Maru Rivas, Pilar Etxebeste, Aintzane Otaegi, Ixiar Ibarguen eta Ainhoa Garañok harreman estu bezain sendoa dute Urmendirekin, hoguei urtetik gora baitaramatzate bertako haurrak hezten. Ordu batzuk baino ez dira geratzen aipatutako emakumeak balkoira igo



URKIA

www.urkia.com

Ongi pasa

Xanisteban jaiak!

eta herri oso bat begira izan dezaten, eta horren atarian «urduri» daudela azaldu diote HITZA-ri.

«Oso eskertuta»

Mahaiaren bueltan hizketan, Rivasek, Etxebestek, Otaegik, Ibarguenek eta Garañok ezer baino lehen adierazi dute, abuztuaren zaren inguruan hitz egiten hasita, «oso eskertuta» daudela. Garañok, baina, harago joan nahi izan du: «Sentsazio gazi gozo bat da. Pozik gaude, noski, aukeratuak izan garelako; baina arrazoa zein den ikustea triste da».

Rivasek ere bere sentsazioak azalera-tu ditu: «Sorpresa bat izan da. Hasieran sorpresaz bizi izan genuen, baina orain ilusioa da nagusi. Denborak aurrera egin ahala konturatzen zara jendeak zure lana ikusteaz gain, baloratu ere egin duela».

Xanistebanetako Jai Batzordeak aukeratu du Urmendi txupinazoa botatzeko eragile modura, baina herritarrek egin dituzte proposamenak lehenengo. Hori ere bada kontuan izan beharreko zerbait. «Pozik eta harro gaude», dio Otaegik horren harira. Buruarekin berretsi dute denek iritzia, baina Rivasek sakondu du erantzunean: «Herri proiektu bat izan da [Urmendi], eta badu guretik zerbait. Herriak horrelako egun handi eta garrantzitsu batean gu hor ikusi nahi izatea gauza handia da». Etxebestek jarraitu du gero: «Herriak azken momentura arte egin du bat gurekin».

Urte asko daramatzate bost emakumeek Urmendin lanean. Ordu asko

eman dituzte bertan, eta gauza onak bizi izan dituzte batez ere, nahiz eta buruhaustek ere izan dituzten. Rivasek eman ditu azalpenak: «0-3 etapan beste modu batera egiten da lan. Inplikazio handia eskatzen du, esfortzu handia, eta baita aldaketa asko ere. Uneoro gauza berriak jartzen genituen mahai gainean, eta talde mailan horrek lan handia eskatu du. Gauza askotan jarri behar genuen ados, eta oso intentsua izan bada ere, oso polita izan da».

Urmendiko langileak eta proiektua sortu zutenak izango dira udaletxeko balkoian suzeria pizten

Urmendin sortutako oroitzapen asko dituzte balkoira igoko direnek, eta ezin izan dute ekidin zenbait bizipen eta istorio gogoratzea. Elkarrizketa ororen ondorioa, baina, berbera da: «Lagun talde bat izateaz gain, familia handi bat gara».

Ibarguenek heldu dio elkarrizketari: «Taldea handi bat gara, inplikazio handia eskatu du, eta ukituta gaude». Rivasek ildo horri eutsi dio: «Hunkituta

gaude, baina honek guztiak gauza positibo asko ere ekarri ditu. Egoera honek eraman gaitu pentsatzera baditugula lagunak».

Herriarekin gertutasuna

Garañoren iritziz horrenbeste urtez Urmendin lan egiteak familia askorekin gertutasuna lortzera eraman ditu, eta pozik kontatu du haur askoren heziketaren parte izateko zortea eta poza dituztela. «Gauza positibo asko bizi izan ditugu, baina zailtasunak ere bai. Hau errematea izan da, baina nik gehiago bizi izan dut onetik zailtasunetik baino», dio.

Bi egun bakarrik geratzen dira xanisteban hasteko suzeria piztu eta botatzeko, eta Urmendiko kideek argi dute herriari eskerrak eman nahi dizkiotela. «Herriari, baina bereziki Urmendi Beti Herri 0-3 Bizirik herri plataformari. Gure lana baloratu izanagatik esker-tu nahi ditugu». Finean, Etxebestek laburtu du egoera: «Etxeko altxorrik onena gure eskuetan utzi dute, eta hori eskertzekoa da».

Hezitzailak, sukaldariak, garbitzaileak eta Urmendi martxan jarri zutenak igoko dira udalerriko balkoi nagusira herriari eskerrak emateko eta «Urmendi beti bizirik» egongo dela aldarrikatzeko. ■

**URKABE**
higiezin agentzia

**ALOKAIRUAK
ETXEBIZITZAK
LOKALAK
SALMENTAK**

Aialde, 3 - OIARTZUN - Tel.: 747 426 211 - urkabeinmo@urkabe.eus

**GiRiZiA**
KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

GOZATU EUSKARAZ ETA GIRO
ONEAN HERRIKO FESTAK



**GORA XANISTEBANAK!
GORA OIARTZUN!**

Herriko sagardoen artean pizten da lehia

Ibargain elkarteko kideek antolatzen dute urtero sagardo lehiaketa. Aurtengoa berezia da, elkarteak 50 urte betetzen dituelako, eta lehiaketak 25.

URKO IRIDOY ALZELAI

Sagardoaren eta Oiartzunen arteko harremana handia da. Maiatzean egiten den Sagardo Eguna geroz eta handiagoa izaten da. Egun horretako arratsaldean sagardotegi handien uza probatzeko aukera izaten da, baina herriko sagardogileek ere badute haien lekua, goizaldean. Hori baita sagardoaren kulturak Oiartzunen bultzatzen duena, familietan, baserrietan eta lagunen artean sagardoa egitea. Lehen, baserrietako edaria zen sagardoa, eta hori edaten zuten bizirauteko, haien uza azken tantaraino aprobetxatuz. Ohi-turarekin jarraitzen dute Oiartzungo dozenaka baserrik, eta horren adibide dira Sagardo Eguneko goiz parte, eta batez ere, xanistebanetako sagardo

lehiaketa. 25. aldiz egingo dute aurten sariketa abuztuaren 4ko 11:50an hasita. Inaxio Uharteren omenezkoa da.

Ibargain elkarteak antolatzen du gaur egun sagardo lehiaketa. Herriko sagardogileak biltzen dituzte, hamabost bat, sagardo onenaren bila. Andoni Irigorri elkarteko kidea da, baita sagardogilea ere. Ilusio handiz hitz egiten du lehiaketari buruz, eta baita sagardoari buruz ere. Oiartzun herri sagardogilea dela dio, eta zortzi auzoetan badagoela edaria sortzeko, eta noski, edateko kultura. «Hasiera batean soilik Iturriotzen egiten zen lehiaketa, eta gutxinaka auzoz auzo hedatu zen ideia. Hor ikus daiteke zenbat jende egiten duen sagardoa herrian», azaldu du. Auzoetan egiten ziren lehiaketak, baina Oiar-



Iragorri eta Nazabal, Ibargain elkarteak. Ximun Leturia

tzunen ere aspaldi bazen lehia. Bertso Astearen barnean sagardo lehiaketa egiten zen. Ondoren urte luzez ez zen egin, eta azkenean AEK-k berreskuratu zuen. Gerora Ibargain elkarteak 2014. urtean hartu zuen bere gain.

Hamabost partaide inguru elkartzten dira txapelketan. Irigorrik azaldu du hortik gora gehiegi direla, eta horregatik muga jartzea beharrezkoa dela. Baina, hamabost sagardogile baino gehiago daude herrian, beraz, nola erabakitzen dute nork parte hartzen duen eta nork ez? Auzo bakoitzeko ordezkariak bidaltzen dira azken urteetan. «Zortzi auzoetatik zazpitan ditugu sagardogileak, beraz, gutxi gorabehera



**Lorez lore,
festa eta kolore!**

Pacheco Izeta
Loredenda

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68
MAMUT merkatalgunea
Oiartzun

Higiene profesionala

- › Zure sektorerako soluzioak neurritan
- › Zure eskaerak 24/48 orduetan.
- › Aholkularitza aditua kostuak eta kontsumoa optimizatzeko.

Online ere:

- › Gure katalogoa kontsultatu
- › Zure eskaerak egin eta kudeatu
- › Zure fakturretara sarbidea
- › Eskaintza bereziak



Jai
Hornidurak

Tel.: 943 493 516

www.jaihornidurak.com



auzo bakoitzeko bi pertsonak hartzen dute parte», azaldu du Iragorrik. Aurreko asteburuan, adibidez, Iturriotzeko jaiak izan ziren, eta bertan ere sagardo lehiaketa egiten da. Bertako bi onenak Oiartzungo txapelketara joango dira.

Pixkanaka auzoen laguntza handiago izaten da. «Lortu dugu Iturriotzen, Karrikan, Ergoien eta Gurutzen haien txapelketetatik onenak iristea, hau da, haiek iristea gugana eta ez gu joatea haien bila», adierazi du Iragorrik. Iturriotzeko txapelketa bi aldiz irabazi du Iragorrik, eta Oiartzungoa behin. Itsu-itsuan dastatzen dira sagardoak, hau da, inork ez daki zeinen produktua ari den edaten. Epaimahaiak bertaratzaren diren guztiak dira. Sagardoa edateko edalontzi bat erosi behar

da, eta edalontzi horrekin paper txiki bat ematen da. Paper horretan gehien gustatu zaion sagardoaren zenbakia jarri behar du kontsumitzaileak. Bukarera, bozka gehien dituenak irabazten du saria.

Sagar zaporea nabari

Sagardotik sagardora ezberdintasun handiak daudela dio Iragorrik. «Gauza askok baldintzatzen dute sagardoa. Sagar mota, urte horretako uztia, urte horretan egindako eguraldia... eta noski, sagardogilearen eskua». Ezberdinak izan arren, Iragorrik aitortu du bera ez dela gai bere sagardoa itsuzko dastaketa batean identifikatzen, erraza dirudien arren, gauza zaila baita. Hori ez ezik, sagardo naturalek ez dute sagardo industrialarekin zerikusia Ibagaineko elkartekideen ustez. Txomin Nazabal Ibagain elkarteak kidea da baita ere, eta nabarmendu du askotan, kanpoko jendea hurbiltzen denean, harrituta gelditzen direla etxeko sagardoarekin, «sagar zaporea dutela esaten dute».

Ederki ezagutzen du Nazabalek Ibagain. Iragorriekin batera, elkarteak «ez zaharrak eta ezta ere gazteak» direla dio, eta atzera begira jarri da elkar-tearen hastapenak gogoratzeko. Aurtan, 50 urte bete ditu elkar-teak, beraz, urte berezia dute esku artean. «Garai

bateko ehiztariek toki bat behar zuten eta hau erosi zuten 51 pertsonaren artean. Baziren eraikin osoa erosteko dirua zutenak, eta baziren, noski, bankuan dirua eskatu behar izan zutenak ere», azaldu du Nazabalek. Garai bateko jauntxo baten etxea zen hura, eta beheko aldea, Ibagain elkarteak dena, zaldiekin sartzeko eremua zen.

Handitzen joan da elkarte urteen poderioz. Ehiztarien izaera urtez mantendu da bertan, baina azken urteetan jada ez dira postu zozketak eta hala-koak egiten. Ehiztarien oinordetzan oinarritutako elkarteak da, baina hortik haratago doaz. Aurtan, adibidez, 50. urteurrenean hainbat txapelketa egin dituzte. «Truk txapelketarekin hasi genuen urteurrena, eta ondoren musaren txanda izan zen. Barrikotea ere egin genuen ekainean, eta uztaila lasaiago hartu dugu», dio Nazabalek. Abuztuaren xanistebanak direla eta, sagardo lehiaketa izango da haien eginkizuna. Baina ez dira hor geratuko. «Irailean hasierako 51 horiek omentzeko otordu bat antolatu nahi dugu. Gero, urtea bukatu arte oraindik izango dugu denbora, beraz, joango gara ikusten». Urte berezia dute beraz, ospatzeko.

Erreportajearen bertsio zabalagoa ikusteko joan oarsoaldea.hitza.eus atarira. ■



MARITXU

arrandegia

Donibane kalea 8 - Oiartzun - 943 49 06 43

Ongi pasa xanistebanak!



KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79

electricidadoarso@gmail.com

kblelektrizitatea.eus





Oiartzo

etorkizunerako bidelagun

IKASTOLA

Gora Xanistebanak!

Eta biba zuek, gazteak!

www.oiartzoikastola.eus



IKASTOLAK

Sufrimendurik gabeko jaiak nahi dituzte

Aia, Aska Itzank Animaliyak taldeak herriko jai eta ospakizunetan animalien erabileraren egiten duten ekintzak kentzea edota ordeztzea du helburu.

Oiartzungo jaiak, auzoetakoak, edota Txerri Eguna bezalako datak izaten dira eurek begiz jota dituztenak, eta duela urte batzuetatik hona jarduera horien ordeztzea beste batzuk proposatzen dituzte herritarrek ikusi dezaten posible dela jaiak gozatzea eta ondo pasatzea, animaliak erabili gabe edota animaliak sufrimendura kondenatu beharrik gabe. «Guk argi daukagu jaiak ahalik eta inklusiboak eta denentzat izatea nahi dugula», azaldu du Eñaut Retegi Lekuona AiAko kideak.

Data esanguratsuak gerturatzen doazen heinean kartelak eta pankartak jartzen dituzte herrian barrena, baina gogoetarako zein hausnarketarako tartea ere bilatzen dute euren Instagram kontuan (@aiarioiartzun). YouTubeko kanala ere badute, izen berekoa. Noski,

**AiAk bi jarduera
prestatu ditu
xanistebanetarako:
Gosari txow eta
ur puzgarriak
haurrentzat. Herrian
kontzientzia sortzea
du helburu taldeak.**

LEIRE PERLINES APALATEGI

sare sozialak ere kritika egiteko baliatzen dituzte.

2020aren bueltan hasi ziren taldekideak biltzen, eta Retegik azaldu du hasieratik bazekitela euren fokua herriko jaiak, auzoetakoak edota auzo edo herri bat atzetik ez duten ekitaldiak direla. COVID-19aren pandemia zela eta, baina, ez ziren herriko jaiak egin, eta bi urtez AiAko kideak jai batzordeko parte baziren ere, euren lehenengo proposamenak 2022an egin zituzten.



«Hor izan genituen lehen ika-mikak jai batzordeko kideekin».

Euren jardunarekin hasi zirenetik pasa dira urte batzuk dagoeneko, eta Retegik kontent azaldu du urteen poderioz hasierako gatazka giro hori pixka bat «difuminatzen» joan dela, eta gaur egungo erantzuna oso positiboa dela. «Urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte, eta jarduerak ja beraien izaera propioa hartzen ari dira, ez dira soilik kontra-programazio batean oinarritzen diren ekitaldiak».

Xanistebanetan, bi jarduera

Animalien aldeko taldeak bi ekintza antolatu izan ditu oraino Oiartzungo jai nagusietan: Gosari Txow eta ur puz-

GARMENDIA ITURTUXOKO S.L.
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
ELORRONDO 1, BEHEA
OIARTZUN
WWW.GARMENDIAITURTUXOKO.EUS
giturtuxoko@gmail.com 943 49 44 36 - 639 37 39 98

**Ondo ondo pasa jaietan!**
MUSEO del VINO
T A B E R N A
Mamut Merkatal gunea. OIARTZUN 943 49 11 02

**Jai zoriontsuak!**
ITZIAR
EDERGINTZA
Santusene kalea, 5. Oiartzun.
Tel.: 943 49 39 81



**AiAk antolatutako ur
puzgarrietako artxiboko
irudi bat. HITZA**

garriak. Lehena makarroi jate moduko bat da, eta abuztuaren 3an egiten den sokamuturraren ordu berean egiten dute, «gaztetxea zegoeneko gazte batzuk egiten zuten hori, eta guk 2022an errekupeatu genuen», dio Retegik. Bolognesa beganoa eskaintzen dute hitzordu horretan, urtetik urtera kilo gehiago, gainera.

AiAkoek, baina, ez zuten jarduera hori janari truke soil batean geratzerik nahi, eta jendeari beste zerbait eskaini nahi ziotela erabaki zuten sokamuturrera joateko beharrik gabe. Hori horrela, Orgasmo herriko gazte sortzai-

leekin hitz egin zuten, eta ikuskizun bat egiten dute, «makarroiak banatzen ditugun bitartean gaupasazaleak dibertitu daitezzen». Gainera, aurreratu du aurtengoan iazko ikuskizuna errepikatuko dutela.

Gosari Txow, txosnagunean

Aurtengo AiAko lehenengo jarduerak, baina, badu berritasun bat, lehenengoz egingo baitute txosnagunean. Retegik azaldu duenez, sokamuturra iaz ikastolaren ondoko zelai batera mugitu zenez, eurek «txosnagunea erreklamatu» zuten.

Taldearen bigarren jarduera ere egun berean da, 11:30ean, baina dagoeneko kontra-programazio itxura galdu duela dio. «Lehen Gorriti Show eta poniekin egiten ziren jarduerak, baina hori lehenengo urtetik ez da egiten». Haurrak animaliekin ez ibiltzeko ur puzgarriak jartzen zituen AiAk, eta aurtan ponirik eta zezen txikirik egongo ez bada ere, uretako puzgarriak mantenduko dituzte: «Ur puzgarriek beren lekua hartu dute ezeren kontra izan gabe ere. Ja egitarauko alternatiba erreal batean bilakatu dira».

Haurrentzako eta etxeko txikienentzako antolatzen dituzte puzgarri horiek, eta Landetxe plazan izango dute lekua nahiz eta lehenago ikastolan

jartzen zituzten. Orotara, bost puzgarri jarriko dituzte, adinaren arabera erabiltzeko.

Jende andana gerturatzen da AiAk antolatzen dituen jardueretara, eta horren aurrean taldekideak dio dagoeneko lortu dutela euren nortasuna: «Jarduera finkoak dauzkagu, eta urtetik urtera esango nuke jende gehiago ausartzen dela bertaratzerara». Alabaina, jakitun da bere momentuan talkak sortu zirela: «Hasieran etxe askotan gatazka sortu edota hausnartzeko behar bat azalarazi zen. Bi proposamen daude ordu berean, eta bakoitzak erabaki behar du nora joan, zer egin, eta zer ez. Asentatuta dago gure egitaraua».

Urte hauetan guztietan egindakoaren inguruan galdetuta, Retegi sinistuta dago herrian kontzientzia piztu dutela, eta, noski, horren adibide argi modura jarri du jardueretara bertaratzen den jende kopurua. «Hasieran eztabaidak eta erabaki behar horiek sortu ziren, tentsioak, eta ordu berean bi ekitaldi egoteak nahitaez pentsatzerara behartzen zaitu, aukeratu egin behar delako nora joan eta, ondorioz, nora ez».

Retegik AiAren inguruan kontatu duen guztiak kontuan hartuta, ondorioa argia da: «Bagoaz poliki-poliki jai herrikoiak denentzat bideratzen». ■

elizalde
**EUSKALDUNA
ETA PUBLIKOA**

HERRI ESKOLA
HH-LH
943 89 93 92
INSTITUTUA
DBH
943 89 92 83

**Jai
zoriontsuak
izan!**

WWW.ELIZALDE.EUS
MANUEL LEKUONA 5, OIARTZUN

Takalo
**Egurrezko Labean
Egindako Janariak**
Rafael Pikabea 50, Oiartzun
Tel.: 943 49 25 85 / 640 08 08 72

**FERNANDO
KARROZERIAK**

**Zelaimusu 55 (Ugaldetxo)
OIARTZUN**
Tel.: 943 491 482
info@carroceriasfernando.com

Barraketan ere euskara entzun dadin



Zenbait haur Oiartzungo barraketan. Allende Arnaiz

Jarduera horretan pertsona bakoitzak hamar abesti proposatzeko aukera izan du; «horietatik zortzi, nahitaez, euskaraz izan behar ziren», azaldu du Martiarenak. Beste bi

kantak, berriz, edozein hizkuntzeta-koak izan zitezkeen.

LEIRE PERLINES APALATEGI

Euskara entzuten da Oiartzunen. Euskaraz bizitzeko ahalegina egiten ari dira herritar asko. Alta, hizkuntzaren gaur egungo egoera ez da onena, eta hori irauli nahian dabilta hainbat esparrutako eragileak.

Hori horrela, Elizaldeko Ttirikittauki eta Haurtzaroko Eskuttun taldeetako gazteek antolatuta, aurten ere Xanis-

teban Festetako barraketan entzungo den musika aukeratu dute. Gazteen Topalekuko hezitzaileekin elkarlanean eta udaleko Hizkuntz Normalizaziorako sailarekin elkarlanean egin dute jarduera, eta bertan 10 eta 25 urte arteko gazteek hartu dute parte.

Nekane Martiarena Topalekuko ardura duna da, eta hark kontatu du aurten lehenengo kudeatu dutela jarduera «gazteak topalekuan elkartzen direlako» eta beraz, «aproposa delako bertan egitea».

Euskara eremu guztietara zabaltzeko Topalekuko kudeatzailearen hitzetan, «erantzun ikaragarria» izan du ariketa horrek, orotara 159 pertsonak bozkatu baitute. Are, 1.500 proposamen jaso dituzte, eta 488 abesti ezberdin bildu. Proposamen horren helburuaren inguruan galdetuta, Martiarenak azaldu du euskal musikari zabalkundea emateko egiten dutela, «euskara eremu ezberdinetan entzun dadin», alegia.

Ez da lehenengo aldia Oiartzunen egitasmo hau egiten dutena, eta beharrezkotzat eman dute antolatzaileek: «Agian barraketan ez dago horrenbeste aukera musika euskaraz entzuteko, nahiz eta urte asko diren Oiartzunen hau egiten dela».

Oiartzun arnagunea bada ere, badago zer eginik: «Guretzat erabat garrantzitsua da euskara alde guztietan entzutea, ez bakarrik barraketan. Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz bizi gara, eta behar-beharrezkoa da euskara zabaltzea toki guztietara. Goza dezagun euskaraz gure herriko xanistebanetan», esan du Martiarenak. ■

Gora Xanistebanak!

Plazan bertan

Doneztebe plaza 13, Oiartzun
Asteartetan itxita

Orea

Okindegia
Kontzejupe plaza 1
20180 Oiartzun
☎ 943 94 06 57
📞 623 21 60 19

Gora xanistebanak!

Altzibarko

EROSKI city

BERTAKO SUPERMERKATUA

Olalde kalea 4/5 behe.
943 26 03 45
Altzibar.
OIARTZUN

sagardotegia

BALEIO

sagardo naturala

Urte osoan zehar sagardo botilen salmenta

943 4913 40 - 626 69 30 74
OIARTZUN



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Oier Iriarte



Ane Mendizabal



Ane Mendizabal

SOKADANTZAREN ONDOREN, URMENDI

ABUZTUAREN 2AN. Igande arratsaldean hasiko dira 2026ko xanistebanak era ofizialean abiatzeko ekitaldiak. 17:30eko agerraldi feministaren ondoren, 18:30ean udalbatzako kideek sokadantza dantzatu-ko dute, eta ondoren Urmendik botako su suziria.

URTE OSOAN HARROTZEKO, SOKATIRA

ABUZTUAREN 3AN. Xanisteban Egune-ko izar auzoak izango dira. Zehazki, herriko auzoetako kideak sokari tiraka. Izan ere, Madalensoro pilotalekuak Oiartzungo Auzoen Arteko 38. Sokatira Txapelketa jasoko du. Bertan irabazle diren emakumeen eta gizonen taldeek 2027ko abuztura arte harrotasunez eramango dute garailearen ohorea.

FESTARAKO PREST IZATEKO, JAN

BAZKARIAK. Musika emanaldiak kenduta, une berean jende gehien pilatzen dituzten jarduerak herri bazkariak dira. Abuztuaren 5eko 13:30ean Gazte Egune-ko bazkaria izango da plazan; eta abuztuaren 6ko 13:00etan nerabeen bazkari autogestionatua Landetxe plazan, eta ondoren (14:30) adinean aurrera doazen arkume jatea plazan.

KALIA

Gu ga Kalia
Gu ga Kalia
Herriko eroslia, herriko saltzailia.
Kaliiiiiaaaa ga gu
Kaliiiiiaaaa ga gu
edabe majikua eroslik dakagu

Oiartzungo merkataritza bizirik
mantentzen duen herrixka garaiezina.

HILAK 31, OSTIRALA

MUSIKA

Hondarribia. 08:00etatik, Alde Zaharrean eta Mendelu auzoan, San Inazio eguneko Hondarribiko Txistu Taldearen alborada berezia.

Hondarribia. 18:00etatik gauera arte, Harresilanda kalean (harresietako belardian), Reggae Uhinak jaialdia hainbat musika talde eta sortzailerekin. Egitaraua osorik ikusteko aukera, hemen: bidasoa.hitza.eus.

Oiartzun. 19:30ean, Done Eztebe elizan, Harri Beltzaren XXX. Udako Kontzertua Lurdes Iriondoren omenezko Errota zaharretik ikuskizunarekin. Informazio gehiago, hemen: oarsoaldea.hitza.eus.

Irun. 22:00etan, San Juan plazan, Isora taldea.

Errenteria-Orereta. 22:30ean, Herriko Plazan, EMKE Bandaren San Inazio eguneko kontzertua.

ANTZERKIA

Irun. 19:00etan, San Juan plazan, Trapu Zaharra konpainiaren *Azkena eta bagoaz* kale antzerkia.

Hondarribia. 22:00etan, Arma Plazan, Maite Guevararen konpainiaren *Susto* kale antzerkia.

JAIK

Pasaia. Donibaneko santioen azken eguna. Egitaraua ikusteko joan oarsoaldea.hitza.eus webgunera.

Irun. Igandera arte, Behobia auzoko festak. Egitaraua ikusteko joan bidasoa.hitza.eus webgunera.

Oiartzun. Iturriotz auzoko santiyuen azken eguna. Egitaraua, hemen: oarsoaldea.hitza.eus.

BESTELAKOAK

Irun. 12:30ean, Oiasso Museotik abiatuta, erromatarren termen aztarnategia ezagutzeko euskarazko bisita gidatua. 9 euro.

ABUZTUAK 1, LARUNBATA

ANTZERKIA

Irun. 19:00etan, San Juan plazan, Trapu Zaharra konpainiaren *La última y nos vamos* kale antzerkia.



Emeki

HONDARRIBIKO TXOKOEN KOADROAK, EMEKIREKIN

HONDARRIBIA. Igandean (abuztuaren 2an) egingo du Emeki Emakumeen Elkartek XXXII. Kaleko Margo Lehiaketa. 18 urtetik gorako edonork egin ditzake koadroak, eta 09:00etatik 11:00etara eman behar dute izena elkartearen egoitzan. Partaideek Hondarribiko Alde Zaharreko edo Portua auzoko txokoak margotu behar dituzte koadroetan, eta horien entrega 17:00etatik 18:00etara egin behar da Santiago kalean. Han, koadroekin erakusketa jarri, eta sariak banatuko dituzte.

BESTELAKOAK

Hondarribia. 08:00etatik, San Pedro kalean, baserritarren azoka.

Irun. 10:00etatik 21:00etara, Zabaltza plazan, bildumagintza azoka.

Irun. 10:00etatik, Txingudi Ekoetxetik abiatuta, Bidasoa ibaia ezagutzeko zeharkaldia. Aurrez egin behar da tokia- ren erreserba. 4 euro.

Hondarribia. Larunbat eta igandean, 11:00etatik eta San Pedro kalean, Hondarribiko Udako Merkatua postuekin eta hainbat jarduerarekin. Informazio gehiago hemen: bidasoa.hitza.eus.

Irun. 12:30ean, Oiasso Museotik abiatuta, Irun erromatarra ezagutzeko bisita gidatua. 9 euro.

Hondarribia. 18:00etatik 20:00etara, Maddalen Arte Gunean, Konfiantzatik hasi zena interbentzio artistikoa. Igandean ere egingo dute, ordutegi berberean.

ABUZTUAK 2, IGANDEA

MUSIKA

Irun. 18:30ean, Lakaxita gaztetxean, Australiatik etorritako Lunatic eta Where's Jimmy taldeen kontzertua. Aurretik, 14:00etatik zehazki, barbakoa antolatu dute eguna girotzeko (aurrez eman behar da izena bazkaltzeko).

JAIK

Hondarribia. 10:00etatik 20:00etara, XXXIV. Herri Giroa jaialdia herriko hainbat tokitan. Egitaraua, hemen: bidasoa.hitza.eus.

Oiartzun. Xanisteban Jaiak hasiko dira. 18:30ean ekingo diete festak abiatzeko ekitaldiei. Informazio gehiago aste- kari honetan, eta oarsoaldea.hitza.eus webgunean.

BESTELAKOAK

Irun. 11:30etik, Txingudi Ekoetxean, *Energia* jokoan familientzat ginkana. 2 euro.



Gozatu Xanistebanez. Erantzun festari.

